

**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
29n. ZENBAKIA**

**ZEZEILLA
— 1980 —**



EUSKALDUNAK - GIZADIA - MAITE DOGU

(Gosearen aurkako ekiñaldia)

*Olako eginbearrak artzera,
oitu zaitte.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.*

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-
goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan
aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baiet-
za agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezar-
teko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo dogu-
zan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabalte ta aldatze au, Biz-
kai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorki-
zun ederrago bat egitea gura dauala
adiazoteko bidea izango da.


Etorkizuna, geroa, gaur asi bear do-
gu.

Biar emen izango da.



BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA

Geroa, bertan daukagu.



GOSEA

BAI, GOSEA! Bai, munduan gosea dago eta gizonik geienak, erdiak baiño geiago zer-janik ez daukela bizi dira.

Ba-dagoz munduan ondasunak, eta aurrerapen aundiak egiten dira, baiña zori txarrez ondasun edo aberastasun oneik eta gizonen lana txarto bideratuta dagoz.

Lenengo, gizonai jaten emoteko, jazteko ta bearren diran gauzatarako dirua eralgi-bearrean, gizonak izkilluak egiten, illargira joaten, gudetan eta olakoetan eralgiten dabe.

Eta lurrari berak emon al dauan frutua aterateko, batez be biztanletza ugaria dagon lurraldeetan, ez da ainbeste diru eralgiten.

Txin.a'tarrak antxiñatik esaten daben lez, «gizon bateri arraiña emotea baiño oba da arraiñak arrapatzen irakastea», baiña Ian au egiteko dago eta gosedun lurraldeetan ez da dirurik eralgiten elburu ori lortzeko.

Eta ori egin ezik, ainbeste milloiren agoak betetako eta sabelak lanean jarteko dirutza ikaragarriak eta egunero bear dira.

* * *

MUNDUA BESARKATZEN Zenbaki onen azalean agertu dogun lez, euskaldunak mundua besarkatzen gagoz. Ez gara bakartiak.

Baiña besarkatze orretan ez doguz geure arazoak beste barik ikusi bear. Gauk arazo latzak daukaguz, baiña gosez ilten dagozenen egoerea gogorragoa ta latzagoa da.

Arazo orreri erantzun egokia emoteko bearturik gagoz, guztiok eta bakotxa.

Eta ez biotz-min utsezko erantzuna. Gosea ez da kentzen erruki utsaz, ezta arazoa aituaz beste barik be. Goseak ez dauka beste erantzun egokirik jaten emotea baiño, eta jaten emon bear dogu.

Jatekoa bera ezin geinke eroan urrin dagozen lurraldeetara, eta urrean daukaguzan gosedunai be ezin geinkie eskura janaria emon. Baiña orretarako bideak aurkitu geinkez, batez be CARITAS'en bidez eta diru-laguntza emonez.

* *

BIOTZ - ZABALAK Jakiña da gu euskaldunok itxuraz legorrak eta biotzez aberatsak edo jokera onekoak garala.

Oraintxe daukagu barruko sentimentu oneik egokiro agertzeko erea.

Begitu dagigun bakotxak bere bizitzara: Ez dogu bearrezko ez dan alperreko gasturik egiten? Esaterako; Jaten, edaten, jolasetan, jazten, erretan, ibilten...

Eta zer esango leuskigue gosez ilten dagozenak, umeak eta elduak, ori ikusiko ba'leukee?. Zer esango leuskigu «Gose danari jaten emon egiozu» esan eban gure Maixu Nagusiak?

* * *

ZER EGIN? Erri batzuk lurralde eskas eta, urrietan, bizi dira, esaterako Jordania edo Ejipto edo eremuetan ezarri diran beste erri asko. Lur areek ezin leilee janaririk emon. Eta uri aundiak sortzen dira an, El Cairo esaterako zortzi milloa biztanle dituala. Orrein urtenbidea oso gatxa da.

Beste erri batzuk lurralde abcratsetan bizi dira, aberatsak lurak eurak, esaterako India edo Txina, baiña lurak emon al dauan furtua aterateko ez dauke erarik. Biztanletza be neurritz gaiñetik ugaritu da, baiña onein urtenbidea errezagoa da: lurra askoz geiago ta egokiago lantzea, baiña orretarako diru-laguntza aundia bear dabe.

Gogoz artu dagigun guztiok arazoa, sartu gaitez an oso-osoan Caritas'en gose-ekiñaldi onetan.

Nora joaten ete da gure laguntza? Itaun au sarri entzuten da gure errikideen artean. Ori jakiteko be arduratu gaitez an.

Gu latzago bizi geintekoz, diru gitxiago eralgiz jokatu geinke, eta orrelan danerako, erri-arazoetarako ta mundu-arazoetarako aterako geunke, baiña arazo au gogoz eta biotzez artu bear dogu.

AITOR - SEMETZA

AITA LARRAMENDI

Aita Manuel Larramendi, Andoain'go seme, gizon jakintsu, izlari azkar eta euskera-zale amurruak, onango au idatzi eban gipuzkoarren Aitor-semetza edo nobletasunari buruz, 1.754 gn. urtean, Loiola'ko jesuiten etxean.

Baiña irakurri aurretik jakin bear dogu Larramendi'k gipuzkoarrakatik esaten dauena, beste edozein euskaldunegatik ere esan leikela.

GIPUZKOARREN «NOBLETASUNA»

Edozein gipuzkoar, Gipuzkoa'ko jaiotetxeren batetik ba'dator, beti Aitor-seme edo noblea dala, bere gaiztakeriakatik, beintzat, mailla onetatik bere erritarrak baztertzen ez ba'dabe.

Aitor-smetza au ez da erregeren batek emona; goragotik dator eta antxiñagotik... Odolaren Aitor-seme izate au jaiotzatik dator.

Eta gipuzkoar guztiak Aitor-seme ba'dira, bearrezkoa da onein esku-lanak ere garbiak izatea...

Orregatik Gipuzkoa'n zapatariak, jostu nak, errementariak, merkatariak, eta beste langintza guztiak izen-onekoak eta garbiak dira.

KASTILLA'KO PENTSAKERA

Eta orain Kastilla'ko «Don Karlos Osorio» edo olako andikiren bat esatera etorriko jat:

—Baiña zelan izan daitekez Aitorren Semeak (nobleak) gipuzkoar guztiak?

Neuk esango deustut: Jatorri garbitik datozelako.

Baiña kastellanoak barriz be esango deust:

—Baiña zapatariak, ikasgiñak, arotzak, eta jostunak zelan izan daitekez Aitorren Seme? Ori pentsatzeak berak be barro-gurea emoten daust.

Baiña neuk erantzungo deustut:

—Eta zuen Kastilla'ko nobletasun ori non dago? Kastilla'ko zuen andiki-noble alperrak,

nagiak, esku-zuriak eta ain kultura gitxikoak zer dira ba? Ikusiak bakarrik barre-gurea ez, asarrea eta lotsea emoten dau.

KASTILLA'KO ANDIKIAK

Kastilla'ko andiki arroak, andi-putzak eta ganorabakoak estimagarriagoak ete dira ba, gipuzkoako langille zintzoak baiño?

Baiña Kastilla'ko jendeak esaten dau esku-lanak odol garbia zikindu egiten dauala.

Era onetan berba egitea Kastilla'ko pentsakera da, ez Euskalerrikoa.

Esku-lanak ez dau odolik zikintzen, ez dau gizon zintzoaren izen-onik galtzen.

Gipuzkoa'n esku-lanak ez dau iñoz iñor zikindu, ezta iñoren izenik galdu be. Kastilla'n olan pentsatzen ba'dabe, or konpon; eta ez daitezela Gipuzkoa'ra etorri euren eretxi labur eta ustelak guri artu-erazotera.

GIPUZKO'AR KASTILLA-ZALEAK

Ondo entzun dagiela kastellanoak leenengo, eta Gipuzkoako «Andiki» batzuk gero, (kastellanoekaz naastuta, ango pentsakerak eta oiturak ikasi dabezanak) : —Edozein gipuzkoar, emengo jaiotetxetik ba'dator, Kastilla'ko edozein andiki arroputz eta narru-errearen bestekoa ba-dala...

Egin daigun zapatari bat edo arotz bat zintzoa dala, langillea, zuzena, okerkerira makurtzen ez dana... Onako bateri zer falta jako alkate edo agintari izateko?

Kastellano'ak esango daust «Don» tituloa falta jakola...

Ai!, zenbat «Don» ikusi doguz Kastilla'n balio ez dabenak, okerrak, euren erriko-etxeetan txarkeri eta gaiztakeri guztiak egiten dabezanak...

Orregatik diñot, alkate edo agintari izateko «Don» tituloaren faltan ez dago iñor Gipuzkoa'n.

«Don» tituloa sobran dago».

GOIKOETXEA'tar Iñakik

Ez Neskame, Bai Etxeko-Andre



A GIRI-LIBURUAK

Gure artean, gauzak astiro aldatuz doaz, zorionez.

1980 urteko leenengo egunetik aurrera. Donostiako elizbarruti osoan, bi izkuntzetan argitaratutako liburu batzuk erabiliko dira ofizialki.

Zeintzuk liburuak? Bateatucn, Sendotza artuko dabenen, ezkonduen eta ildakoen liburuak.

* * *

EUSKERA TA ERDERA

Txaunburuak eta parroketako beste abadeak izango dabe eskubidea ag ri-egiztatzekoak bi izkuntzetan egiteko, eta izkuntza biak —euskerak eta gaztelaniak— era bardinean balio ofiziala izango dabe.

Erabaki au antolatu dabena, baita artu dabena bere, euren begi aurrean zera euki dabe: euskera bere etxean izan bear dala «ez neskame, bai etxeko-andre».

Ez da ezer bereizgarriagorik eta erri bakoitzaren biotzean ain sartuta dagonik bere izkuntza lez.

Eta ikusi dogu zelan sartu diran erri-izkuntzak Elizaren liturgian. Danok dakigu, erri-iz-

kuntzak liturgian erabiltze ori gaurregun zabaldua dagola, eskubide osoz, liturgi ospakizun guztietara.

* * *

ETXEKO ANDRE

Gipuzkoa'n agertzen dan arazo ori, txalogarria izan arren, ez da naiko euskera normalizatu bat Euskadi osoan ikusteko.

Erki edo probintzi ori, Euskal Erriko zati txiki bat besterik ez da.

Euskadi'n zear, eta ez leku baten bakarrik, euskerak eskatzen dau etxeko-andre izatea, ez neskame.

Eskubidea dauka betidanik, gaurregun bere bai.

Afrika'ko erri baltz guztiei aurtortzen dautsegu eskubide santu ta ukaezinezko au: bakoitzak here izkuntzan here nortasuna lantzea.

Orduan, zergaitik eta zein oinarri dala-ta ukatzen dautse batzuk Euskal Erriari, munduko beste erri guztiei ukatzer ez jakena?

* * *

ERRIAREN AINTZA

Jeremias profetaren begiak maiko ugari ixuri eben, bere

erriaren Sion'go alaba —aintza ta jabetasuna amatau zalako.

Ona emen aren itzak: —Negarrez nago, ta malkoak begietatik jausten jataz: zerutik lurrera jausi da nire erriaren aintza; biotza bizkortu lezaidakena urrundu jata (Erostak 1,16). Euskal Erriko semeen artean bere malko asko ikusi dira azkenengo urteetan, euskeraren egoera larria ikusita; zerutik lurrera jausi zan aren aintza. Etxeko-andre ez eze, neskame apala izateko bere eskubidea ukatu jako.

* * *

Gauzak aldatuz doaz orain.

Gipuzkoara begiratu besterik ez dago.

Baiña, beste gauza asko bear doguz oraindiño euskera bere etxean «etxeko-andre» izan daiten: datorrela euskal telebista, datorrela euskal Unibertsitatea, datorrela egiazko elebitasuna, datorrela mailla guztietako Irakaskuntza.

Arazo orreitan datza Euskal Erriaren aintza ta jabetasuna; gauza orreitan datza euskeraren bere etxean «etxeko-andre» izatea.

Eskubidea dauka. Ukaeziñezko eskubidea.

OLABARRI'tar Marcos

ZER-IDAIZKOLAKOEN OARRA:

Bizkaia'n be zabaldu ta legekotzat jarri dira eleiz-agirien liburu ta irarki orreik. Orain edo gero, abadeak orreik erabiltera beartuta dagoz. Baiña erabilli bear dan euskerea, ez batua bakarrik, bizkaiera be izango dala uste dogu.

ZER

Urte Barriaren Aurrean

**On Pedro Pujana'ri
Arteaga'n**

Adarburu zarkituetan, zimur,
erakutsiz neguaren bizarrak
—ainbat itxaro ta etsipenez-
urteak... agur dagisku, agur,
agur egin dausku urte zarrak;
—erabat itun, erabat bildur—
oi dan ameskizun ta, naimenez,
gogaraziz igaran izarrak.

Betiko laiño, eragozpenez,
biurriki, txarkeriz beterik,
egunen illundura astunez
gizona, gizartea, errerik
dakusgun arren, samintasunez...
ez al da bizitzazko argirik
beren egizko izpi, maitasunez,
mundua onbidetuko duanik?

Aurrean dogu urte barria
beren sorkunezko sorbideetan,
ta, betiko ametsak, betiko
naiak loratuko dira gugan,
itxaropen gogaiz soinduriko
betiko bizi-nai, egarria,
bakoitzaren amets-gurarizko
txirpi barriak barruko sutan.

Aldian aldikoz. Ona emen,
etorkizun egunen eskutik,
—beti bezin eder edo .zeken-
bakoitza bere alderditik
gauzak bakoitzarenez ikusten
gaur-geroz, lengo ari beretik,
gizona betiko soka dantzan
gauzak antolatu ta orrazten.

MUNIATEGI'tar Sabin

GOSE - ARAZOA ARINTZEKO



LEEN

Oian bat zan. Biztanleak antxiñako
erara bizi ziran.

Lurra, argazkietan ikusten dan lez,
ez zan emonkor legor baiño.

Eta or atara eikean arroza.

Orretarako tramankulu egokiz lurra
gertatu nai.


Bear dan laguntza:

— Lurra kentzeko tramankulua ta
lan-sariak ordaintzeko 400.000
pezeta bear dira.

— Lurra tokirik tokira aldatzeko
eroakiña 80.000 pezeta.

— Urbide barriak eta porlanezko
odiak 150.000 pezeta.

Eta olako zenbat mundu zabalean,
batez be «irugarren munduan»!



ORAIN

BILBO'RAKO KOTXEAN

GAISO JAKITUNAK

Ondarroa'tik Bilbo'rako autobusa ia egunero beteta ibiltzen da.

Goizeko ibiltariak, geienak, gaisoak edo gaisoren bategaz zer ikusi dauken ibiltariak dira.

Ez da ardura andirik egoten bakoitzaren gaisoa edo makalaldia eskutaten.

Dabiltzanak, ikasi bakoak izanarren, botikariek geienen izenak dakiez, bai eta zein dan bata bestea baiño biziago, zein dan ondoren edo atzerako gitxiago lagaten dabena, zeinek kalte egin leiken, edo ta zeinek gaixo batzutan mesede andirik ez. Ba-dakiez gaiso berberantzako zein osagillek ze agintzen dauan eta besteak zer.

* * *

OSAGILLEEN BARRIA

Osagillien gaitasun eta nortasuna zabal ibiltzen dira. Bai eta bakoitzaren makalaldi, unore, zitalkeri eta argalkeriak be.

Ba-dakie zein osagille bizi dan arrain gosez edo arrain gurariz, zein gustaten jakozan koktxak eta lebatz bizarrak. Eta beste gauzak.

Autobusa gaixo eskola da. Maixu bagako, baiña experientzi sakon baten ondorengo eskola.

* * *

BERAKATZA

Gaur ez da artzen sasoi bateko «tintura de yodo»'ren usaiñik. Zetan geratu ete zan gure denporetako osakai a?

Gu «trabajadoretan» gebiltzala, gure taldean ez egoan beste osakairik kinina eta bismuto baiño. Gaur aitatu be ez.

Lengoan, berakatzetan beratuta lez egin gendun oster.

Lagun bi, ama alabak, euren jarrileketan eioazan.

Eureri begira geratu ziran asko. Itxuraz andik etorran berakatz usaiña. Areik ez ekien don Kixote'renik: Ez egizu berakatzik jan, usaiflean igarri ez dagitsuen zure erri jatorria.

ISEKAZ

Danetakoak etozan lez, minak aztuteko be 'asi ziran batzuk zirikatzen :

—Gaur baten batek a zelako berakatz sopa jan dauan!

—Orreri ez eutsoen esango, niri lez, baraurik etorteko-ta !

—Txorta osoa jan da be ainbesteko usaiñik!

—Andrak, zabaldu egizuez leioak, besterik ezean Durango'ko papelerako atsak edo ta inguruen bateko porro usaiña sartzen etc dan.

Ala egin be irriz norbaitek.

Laster ziran batzuk doministikuka, eta «korientea» egoala-ta leioak itxiteko eskatzen.

—Orraitio «seguruko» medikuagana ez da joango orretara datorrena!

—Zegaitik ez?

—Sartu orduko kalera bialduko leikelako. Len pozik artzen gaitue ba!

Alako baten jagi zan bietako bat eta danoi begira asi:

* * *

ERANTZUNA

—Nor da emen ezer esateko daukana? Arpegiko narru lodia eukiarren, esan daiala garbi, aurrez aurre esatekoa.

—Ez estutu txikiña, baiña zen be perfume obeagoaz etorri ba ziña, ez zendun berbalekurik emongo.

—Eta zu lez, barrukc jantziak ez aldatzezren, begitik bakarrik begiratzen daben osagilleagana doazenak zer? Zuek ez daroazue usaiñik?

Gauzak garraztu egingo ziran, Begoña'ko eliza agertu ez ba'litz, eta batzuk lotsarik ba ete euken eta gizonak zer esango eben eta orrelako autuakin asi ez ba'lira.

Iñori jaramon barik, gure berakatzdunak esan eban:

—Eskerrak zeuri, Ama Birgiiia maitia, ibillaldi on bat egin dogulako. Eta kolkotik sakutxu baten zetuta gordetako zortzi-amar berakatz agin atara ta aidean jaurti zitun leiotik. Bardin alabak.

* * *

ZERGAITIK

Corella'n egon ei ziran udan eta an entzun ei eben, ez mareatzeko kolkoan berakatz gordin zetuak eroatea baiño obeagorik ez egoala. Eta eurak pentsatu eben botika usaiña baiño obeago eta larri gitxiago emongo eutsola bestiei ta...

—Eta etxerakoan? Etxerakoan be orrela etorri bear zarie?, itandu eban batek.

—Etxerakoan, gaur beintzat, Bilbo'ko pastel usaiña, erantzun. Biar medikuak esaten dauana.

A. ZUBIKARAI'k

IZTEGIA

AZKUE'RI JARRAITZEN

*Azkue'ren Iztegia aztertzean, itz batzuen utsunea igarri neban.
Oraingoz, berreun ingura artu dodaz nire erri onetan, bete eguneroko jardunetan erabilten diranak.*

Jatorrak edo ez, emen dagoz.

*Azkue bizi izan ba'litz pozik erakutsi ta eskiñiko neutsazan berari.
Besterik ezean, galdu ez daitzen be, lagunartean zabaltzea bidezko deritxat.*

ZUBIKARAI'k

A		Ardau diru	= <i>Arrantzaleak tabernarako gordeten daben dirua, partillatik atarata.</i> Dinero que los pescadores retraen de los repartos con la indicación de dinero para la taberna.
Abor	= <i>Itxas esakeran, ezker alde.</i> Babor.	Ari meia	= <i>Gizon bildurtia, makala.</i> Espiritu apocado.
Agagain	= <i>Belak eskegi edo lotzeko agaetan ibiltzen dana.</i> Martilero.	Arlanka	= <i>Aingura. Zumaia'n, iru eutsigarridunari, angulet.</i> Ancla.
Agaka	= <i>Makillaka.</i> A palos. (<i>Txomin Agirre'k erabilten eban</i>).	Arlanpa	= <i>Nasa ondota, itxasora erasteko, arrizko beerakua.</i> Bajada en los muelles, en plancha, para el agua.
Ainguratoki	= <i>Ontzia lotzeko toki egokia. Kai barrua.</i> Ondartza. Fondeadero.	Artalakatza	= <i>Kortxo.</i> Corcho. <i>Txomin Agirre'k erabilten eban...</i>
Aize oial	= <i>Ontziak aizearen mende erabilteko belak.</i> Vela.	Artobero	= <i>Oso-osoko, gaitzik bako gizon bat.</i> Hombre tranquilo, sin iniquidades. Molesto y pesado. En Eibar dan sentido de aburrimiento: <i>Artoberotu</i> = aburrise.
Akats	= <i>Utsune, kakua.</i> Defecto, falta. <i>Azkue'k erabilten dau, baiña beste esan-nai oneitan: tajo, mella, cacho, cola de melón, peldaño, tarea o pico de cuentas.</i>	Atabaka	= <i>Arrantzaleak tabakua gordeteko txalopetan erabilten daben kaixatxua.</i> Caja de madera usada por los pescadores para guardar seco el tabaco y otros caprichos. <i>Azkue'k: urna de votación, cepillo de la iglesia, córbona.</i>
Alatean	= <i>Ur gainean, azalean.</i> Flotando.	Atako banda	= <i>Kanporako ibillera.</i> Rumbo a fuera. <i>Azkue'k ain zuzen orren aurkako dau esan naikoa agertzen dau, au da, atako banda barik, ateko banda.</i>
Albateta	= <i>Parrokian, alboko atea. Albatetatik sartu, esaten da, nai ta ate bakarra egon. Albatetako atea zabaldu.</i> Puerta de un lado de la parroquia.	Atarra	= <i>Olgetako gogo, naastekeria.</i> Ganas de juerga. Camorra.
Allos	= <i>Joko baten, bardin.</i> Empate en un partido.	Atxarrain	= <i>Aitzetako arraiña.</i> Pescado de roca.
Allostu	= <i>Jokoa bardindu.</i> Empatar en un partido.	Atzaparra	= <i>Eskuko beatzak.</i> Dedo. <i>Ondarroa'n bardintsu erabilten dira atzapar eta atzamar.</i>
Amandongillak	= <i>Lokarriak egiten diran pelota txikiak.</i> Albondiguillas.	Atzazkal	= <i>Atzamarretan min edo zaurietarako gaiñetik ipinten dana.</i> Dedal para las heridas de un dedo o para librarle de humedad.
Amari ez emon	= <i>Arrantzaleak diru partilla egiten dabenetan, etxean ez emotekotzak banatzen daben dirua.</i> Dinero que los pescadores retraen en sus repartos con la indicación de no entregarlo en casa.	Atzeko	= <i>Itxas ontzietako patroia, lemazaiña.</i> Patrón de embarcación. <i>Azkue'k: cola de vestido, placenta.</i>
Amure	= <i>Bildurti. Kezkati. Amure egon.</i> Receloso. Estar receloso.	Azartona	= <i>Zoriona.</i> Buena suerte.
Amure emon	= <i>Lokarriak arindu edo ainbaten azkatu.</i> Añojar las amarras.		
Andrakilleta	= Muñeca.		
Anka egin	= <i>Iges egin.</i> Escapar. (<i>Akesolo'k batzen dau Azkue'ren geigarrian</i>).		
Apan	= <i>Zaratatsu.</i> Afanoso. <i>Azkue'k «pandero» esan naiaz darabil.</i>		
Apetaldi	= <i>Gurari.</i> Ansia, desco loco.		

	B		
Baka	= <i>Arrantzán, arrasta-eran, bakarrik ibiltzen dan ontzia.</i> Barco de arrastre que tarbaja solo.	Dsastada	= <i>Zirikada.</i> Inyeccion.
Bataparrabi	= <i>Pelota jokoan erabilten dan itza.</i> Palabra usada en el juego de la pelota. Al perder un tanto entre dos, cuando se juega en eliminatorias en cuadrillas, sin poder definir claramente a quien le toca perder, siguen jugando los dos con la condición de retirarse ambos si el sacador les hace tanto.	Dra	= <i>Igarri.</i> Acertar. (<i>Azkue'k</i> : variante de <i>dira</i>).
Bazkaldari	= <i>Bazkaltzeko laguna.</i> Comensal.	Dramio	= <i>Norbait oratu.</i> Alcanzar a alguno. Acertar.
Bazkarraldra	= <i>Txomin A girre'k bazkaltzera deitua izan danari ezarten dautsa deitura ori.</i>	Dsinga	= <i>Batel baten atzean erramu bakarragaz erramutan (A rraunean).</i> Remar con un remo en la popa de un batel pequeño.
Berandutu	= <i>Berandu egin.</i> Hacerse tarde. (<i>Akesolo'k Tätzen dau</i>).	Dsingaleku	= <i>jantzi baten atzeko etena.</i> Se dice por la parte abierta atras en un traje o abrigo.
Bere bostean	= <i>Norbait, bere artean bakarrik izkelan edo zerbaitetan.</i> A sus anchas.	Dongillak	= <i>Pelota txikiak.</i> Pelotitas.
Besigute	= <i>Besigu denpora.</i> Temporada de besugo.		E
Bixika	= <i>Neskatoen jakoa.</i> Juego de niñas, con cositas.	Egata	= <i>A rrañaren ego aldea.</i> Hijada. Aleta abdominal. <i>Azkue'k onetara diño</i> : ruido que precede a la piedra que ace de las nubes.
Bolintxa	= <i>Sore bat.</i> Bolinche.	Enparu	= <i>Gogañ eragin. Enparata laha.</i> Fastidio. Debar hastiado. <i>Enparu euki.</i> Tener hastlo.
Bozinga	= <i>Uretan olgetan ibiltea.</i> Jugueteo en el agua.	Enplastatu	= <i>Enplastoz bete.</i> Emparedar.
Brieak urten	= <i>Gorritu, berotu.</i> Sonrojarse, saline los colores sudores.	Erlaizea	= <i>Olatu txikiak jasoten ditun aizea.</i> Viento flojo.
Bunbat	= <i>Danbada bat.</i> Golpe. (<i>Txomin A girre'k erabilten eban</i>).	Ernani	= <i>Enara.</i> Golondrina.
Burutik berakoa	= <i>Gaixoa.</i> Meningitis. <i>Azkue'k</i> : constipado.	Erramu	= <i>A rrauna.</i> Remi.
	D	Erramulari	= <i>A rraunlari.</i> Remero.
Dar-dar	= <i>Ukapen.</i> Negacion. <i>Azkue'k ez dau ukapen lez erakusten «lemblor» baiño.</i>	Erramute	= <i>A rraunean egiteko era.</i> Remada.
Dardarakua	= <i>Gozoa.</i> Flan.	Erria	= <i>Berate.</i> Arriar.
Deilari	= <i>Deia joten dabena, arrantzale errietan.</i> Señero.	Erru	= <i>Eelsigarri.</i> Tentaculo. <i>Azkue'k</i> : culpa, brio, valor, dificultad, consecuencia; abundancia; flema, gargajo; loda-zal; piel que se renueva en la convalcencia.
Deizale	= <i>Arrantzale errietan, deia joten dabena.</i> Sefiero. (<i>Txomin A girre'k Azkue'ri egindako karta baten diño, ez dabela uste Txomin berak ezik beste iñok ori itz erabili dabenik</i>).	Esku zurda	= <i>Eskurako aparixua.</i> Aparejo de mano. (<i>Tx. A girre'k erabilten eban</i>).
Despiska	= <i>A rraña saretatik askatzera.</i> Desmallar la pesca.	Etxada	= <i>Sarea uretara jaurtitzera.</i> Arrojo deI cerco o red a la mar.
Diamotxu	= <i>Esakera Gat.</i> Diantre.	Ezne tela	= <i>Geuna.</i> Nata de leche o, mejor, capa de la leche hervida.
Dsanga	= <i>Uretara jaurti igari egiteko.</i> Saltar al agua para nadar.	Ezpeta	= <i>A ga luzera, arrantzarako.</i> Vara larga que se coloca en los lados de la embarcacion para sostener los aparejos.
Dsapart	= <i>Norbaileru gogor oratu.</i> Apresar, coger a uno bruscamente. <i>Azkue'k</i> : bofetada.		F
		Firo	= <i>Kanpoan geratu.</i> Hacer falta y quedarse fuera.
		Fit	= <i>Ezer gabe.</i> Sin nada.

(*Jarraitzeko*)

ELERTIA

SABIN MUNIATE

OLERKARI EZAGUNA

Olerkarien artean Bizkaia'k ba-ditu bereak, onak, erdi-merdikoak eta kaxkarrak.

On orrein artekoa da Muniategi.

Antxiña asi zan idazten, an gerra aurretxoan eta gerora be eten barik jarraitu dautso olerkigintzari.

Len eta orain ainbat sari artu dauz, or-emengo poesi-batzaldietan.

Aurtengo OLERTI-EGUNEKOA be berak eroan euskun.

Prosaz askorik emon ez daukun arren, olerkiz oso ugaria agertu izan da. Beraz, ezaguna da oso, idazle, olerkari bezela, Euskalerrri guztian.

NONGOA DAN

Gautegiz-Arteaga'ko semea dogu.

1912'garreneko Lotazillaren 11'an munduratu zan Agirreta auzuneko Portu-Pantzikone izenez ezagutzen dan bizitza biko basetxean.

Berak idazten daust: «Urdibai ibaiaren gazi-gezazko bustitasun lurrunez eta Atxarre'ko mendi artadien beltzdu-ra eta gaztañadi oparotsu ta basoko egurteriaren itzal eta ezetasunpean, Argatxa ta Ozollo bitarteko ibarrean aurkitzen da auzune au».

MAIXUAK

Bertako eskolan egin ebazan lenengo ikasketak, 1919-1925.

Au diño berak: «Atxarre basoko egurrik sendoenakin egindako zigor-makillaz erabiltzen ondo baiño obeto ekian On Zelestino Martinez Alesanco maixuarekin bizpairu urtez, eta gero, arek aldegin ondoren, askoz biotz-beratsua-goa eta irakasten be askozaz obeagoa zan On Fermin Ez-peleta, napar jatorrizko maixuarekin».

GAZTETAN LUDIAN ZEAR

Gernika'ra asi zan gero, agustindarren ikastetxean.

Emen egindako ikastaldi laburraren ondoren, sendiko batzuen ezaupidez, Filipinas Ugarteetara abiatu zan.

Barzelona'tik atera zan Claudio Lopez itxasontzian 17 urte oraindik ez zituala, 1929'garren urtean.

Panay ugarteko itxas-ertzean kokatzen dan Bais izene-ko bisaitar errian, azukre-kañaberaz eta kokotegi ederrez ikuspegituriko «Barak» landetxean.

Azukre-kañaberazko lugintzan ogibidetu zan «listeru» eta arduradun bezela.

Filipindar langille artean, urte-betean ikasi eban bisai izkelgia.

KOKOTEGIAN OLERKARI

Landetxe ortan urte bi egin zituan. Malariatz gaixotu zalarik Mesbate'ko osategira eraman eben eta sendatu zanean Ilo-Ilo'n babestu zan, osaba baten etxean, eta, andik laster beste landetxe bat aurkitu eban Manapla'ko errian.

Landetxe onen izena Nerbion zan, lenengo ugazabak, au da, Mendieta abizeneko, Begoña aldeko bizkaitar batek ezarritakoa.

Orain etxaguntza ori napar jatorrizko Intza'tarren eskuetan datza.

Emen, jatorriz etorkion euskalzaletasuna suspertu jakon eta, emen, zorionez, egin zituan bere lenengo olerki ta idaz-zirriborruak; emen, parnasoratu zan, aldamenean, gara zurixka ta gorrikkako kadaberadiak eta kokotegien ikuspegiz bere gogoari egazean izten eutson bitartean...

LAUXETA'GAZ

Emen, «Euzkadi» izparringiaren Euzkel Atalari esker ezagutu al izan ebazan euskaldun zintzo askoren lanak: Erletxue, lauxeta, Lizardi ta abar.

Emen euskeratu ta Manila'ko egunkari baten, «La Opinión»-en azaldu zan pilipindar martiri Bizal aundiaren «Maria Clara».

Iru urte egin zituan landetxe ontan eta 1934'garren urtean Sabin, bere ugazaba gaztearekin, Europa-zear, Euzkadi'ratu zan.

Eta askenez emen gelditu.

Gerotxoago Lauaxeta'k dei egin eutson Bilbo'ra alkar ezagutzeko.

Eta ementxe sortu zan Muniategi ta Lauaxeta'ren arteko adiskidetasuna.

IDAZLE-ENTZUTEA

Egunik egun olerkari izena artzen asi zan gure Sabin.

Beñola, «Biotzaren Deya» izenburuturiko gure artea-gatarraren olerki txanbelin bat argitaratu zan «Euzkadi» egunerokoaren euskal orrialdean, eta Lauaxeta'k oar au jarri eutson bealdean: «Olerkari barri onek eztakigu zer daukan, baña euzkerek eztauz gaur-arte entzun olako gauzak.

GOIZ-AIZE liburu ederraren egilliak egun zoruntsubak ekarriko dautsoz gure izkuntzeari.

Bere txinta edo abestia dauko gero! Norbaitek esan dauku: ttRarua dozu! Biar ba, bada «razo» batzuk ondo yatorkuz. «Lostati», «Eredo» eta Muniategi. Iru gazte oneik poztuten gaitube.

Txapelak kendu dagiguzan onein aurrian».

GI OLERKARIA⁽¹⁾

GUDALDIAN

Guda aurreko eta guda aldiko egunetan be, euskeragana maitasunak eraginda, herein olerki, ipuin eta idazlan osotu zituan bai «Euzkadi»'n eta bai «Eguna»'n.

«Elorrio'ko Guda-etxetik» izenburua eroian idazlanaren oarrak be onela iñoan: «Elorrio'ko guda-oñian aurkitzen zarala ta onako idazki irakurgarriak idazteko astija ta gogua dozuzala jakitiaz, asko poztu nozu, Sabin.

Idatzi, ba, barriro be, guda-oñetik idazten diran idaztijak irakurteko dagon egarrija, asekatxa da-ta. Orko guda-labanetatik erreketereuei egiten dautsazubezan «mitiñak» be, garrantzi aundija dabe.

Ekin, ba, ekin» !

Oar onek ez ekarren zeintasunik, baiña uste dogu Ibon izango zala, Enbeita urretxondorraren anaia, aldi aretan Euzkal Atalaren arduraduna zana.

Gero, danok dakigun gau luze illuna gaiñera zan, askatasun izpi bizigarriak itzak garratzez estaltzen ebazalarik.

Zurrunbillo ikaragarri onetan murgiltzen da gure olerkaria be, «galtzailleen taldear» > ;pillaka gudari minberaturen artean, ainbat urteko kalbarioan: zigor-batzakuntzazko zelai, zigor-gudaloste, espetxe ta abar, egun eta urte lazarriak nunbait.

«GOIZ-AIZE»

Arrezkeroko bizi-zeaztasunak urrengo atalerako itxirik, Muniategi'k garai aretan argitaratu eban «Goiz-Aize» olerki-liburuko batzuk jorratuko doguz.

Dalako liburua gerra asi aurretxoan argitara zan Bilbo'n Henao kaleko «Zurak» irarkolan.

Larogei orrialde daukaz, 32 olerkirekin.

Laburrak ditu geienak, rimadunak geienak, beste batzuk olako lotura barik osotua.

GAIK

Lauaxeta'k itzaurrea.

«Muniategi'tar Sabin —diño— olerkari gazte-gaztiarena dozu». Bizkai'ko itxaso arraren urdiña dauko begi-barnean. Eder eta On'elc eurentzat autetsi eben. Buru ameskorra eukan eta aruntz-onuntz ibilli izan da bere euzko txapela buruan ebala. Ondo ikasi eban: «Atzerrian lurra garratz, oña ipiñi egik baratz».

Geroko lanetan lez gai asko urkultzen ditu orduko olerkietan be.

Maitasuna, lurra, itxas urdiña, aur-olerkitxuak.,.

Lauaxeta'k barriro be: «Muniategi'k dardara, ikara barria dakarskigu: Odei zadortsuen itxurak, palmondoen amets-naia k, Kolonbo'ko belaeen baltza.

Gaur arte izan doguzan olerkariakandik zerbaitek bereztu darua. Bere begiak daukaz. Gitxitan aurkitu daipegu gazte onengan aurkitzen dogun ederti-miña.

Gauza guztietan idoro darua edertasunaren zantzua Euzko-Edertiak asko itxaron daike mutil onengandik».

KOLONBO'KO BELAK

Eta emen dago, izan be, olerkariaren izatea, ederraren zantzua aurkitzean.

Buruz eta biotzez osotua da poesia, baika geienez beintzat ingurutu zerbaitek arrotu oi dau gure adimena ta piztu-azo gure biotza, ots, au edo bestea ipusteak sarri.

Baita atzerrian naiz miñetan aurpitzeak be.

Zertzelada oneik poesi-gai izan oi dira, elerti-lanen sortzaille eta argi-emoille.

Askoren artean bat auperatzeko, ez ete dago orrelaxe egiña gorago aitatu dogun «Kolonbo'ko belak» deritxona?

Urte batzuk Filipinas'en erre ondoren, etxerantz dator olerkaria President Adams itxasontzian.

An ikusiriko gauza askok dardarazo dautsoe biotza.

Irakur osorik:

Oi, ene! neure euzko-begi, begi urdiñak!
Zeylon urartian, Kolonbo'ko urijan
Zenbat bela ikus dozubez egazean
Aragi ustelez beterik erpiñak?

Bela guztijak lez baltzak ta loyak ziran,
Baña ez euretariko bat il, ez ikutu...
Abere goitarrak dira ta benetan
Eurentzat obarik ezin leike arkitu.

Ixontzija egaka doya itxas-ganian
Alaitasunez itx[rik an, urijan,
Kolonbo'ko bela aragi ustel-zaliak.

Ai, al baneuke al, erri orren antzian
Itxi, barruki errien, neure bijotzian
Sartu diran oitura baltz eta loyak!

ITURRIAK

Neruda'k be —andik ibillia bera— onako zerbait idatzi euskun.

Askok, ara ta ona ibilliz, naiko ikusita be, ez dabe ezer jasoten.

Bai, ostera, egiaz olerkari danak nun-nai idoro oi dau poesi-iturri joria, oroldipean ixil doan ur-xirriparen gozoa.

Orrein taldekoa dogu Muniategi, artiar kantari fiña.

Aita ONAINDIA

EUSKAL JAI BATEAN

Goizeko zortzirak dira ta eguzkiaren lenengo argi-izpi* batzuk artean agiri dira estu ta larri.

Oraindiño goiza cia baiña mendi eder onetara bertaratzen dan jende moltzoak*, gaur egun berezi bat dala adierazten* dau, Euzkadi'ren tzat . Gaur «... eguna» ospatzen da.

Batzuk euren berebilletan, beste batzuk autobusetan eta enparauak* al daben lez apurka danak eltzen dira. Motxiletan arrautzopil* ederra ta zatoa ardaoz beterik.

Jende geiena eldu danean derigorrezko itzaldia asten da,

aurrean burukide edo jaurlari* edo momentuko gizonik ospetsuenak. Danok txalotzen doguz izlarien berbak, gure eskuetan min artu arte.

Baiña, konturatu etc gara euskeraz berba egin dabela-ta danek txalotzen dogula? Danok ulertzen etc dogu euskeraz?

Egun zoragarri au aurrera doa astiro astiro alaitasun aundiz, beste egunetan eukiten doguzan arazoak gaur baztertu egin doguz; berebilla, lantegiko arazoak, semeen ikastola ta abar.

Azkenik «...Eguna» amaitu da ta mendia len egoan baizen

garbi itzirik eta baketasunez gure cxeetaruntz abiatzen* gara biotza pozez beterik dogula. Baiña zoritxarrez, etxera eldu ta antxe bertan gelditzen da geienen ekin-tza. «...Eguna» ospatzea oso ondo dago, baiña gero zer egiten dogu euskera ta Euskalerrriaren alde?

Alegiñak egiten doguz euske-rea ikasteko?

Zenbat ordu emoten doguz Euzkadi'ren alde?

Onek bai ba-dirala garratzak!

SAN NICOLAS'tar Iñakik

B D A G L O M O I J A R K O G
I E P A I L A M D O R R I L O
J U T S B U K O R R I A B O K
A L I N A Z E D E R E J U T E
G O S U M A G I G A D U G A B
E T X B E P E L Ñ I L O T Z A
L A M D K U L J E L L T S I J
O P A L S T Ñ E G L O L L L E
G U Z Ñ E Z O K A U P D I L M
B I D A G O N I L J I N R I K
A K A M I G A D L A B I J G A

Izki-naste onetan egutegi geienetan erderazko izenagaz agertzen diran bost illaren izenak, euskera jatorrean agertzen dira.

Ia topatzen dozuzan, bestelan ikusi azkenengo orrialdean.





EUSKEREA

FUNDACION SABINO ARANA

Orain illabete batzuk dala, poz aundiz irakurri genduan, Sabino'ren etxea egon zan tokian, beste barri bat ereikiko* ebela, elburu* nagusi bategaz: Euskal-kulturaren alde lan egiteko.

Egia esan ez da elburu txarra au, ez orixe! Berealaxe asi zan zabalkunde* izparringi, aldizkari (ZER'en ez), ta irratietan asmo orren alde.

Baiña arriturik geratu gara orain arte ikusi ta entzun dogun zabalkunde guztia, erderaz izan dala ikustean.

Benetan, gure jakintza barruan, lenengoa ta garrantzitsuena* gure izkuntza da, ta «etxe» orretan euskerea baztertzen ba'da, geureak egin dau! Eta zoritxarrez orain arte orrela dirudi.

* * *

EUSKEREA EZ DA EDERGALLU BAT

Sarritan euskerea edergallu* bat lez erabiltzen dogu mail* askotan.

Alkarrizketa mallan «agur» edo «gero arte» esateko bakarrik, au kalean edozein tokitan entzungo dozue. Irratietan bardin, irratsaio* baten asieran edo amaieran, «egunon», «arratsaldeon» edo «gabon» esango dabe, baiña beste guztia erderaz izango da, ta bada-ezpadan aipatu* dodazan berbetan elebitasuna erabiliko dabe ta «buenos dias», «buenas tardes» eta «buenas noches» be esango dabe, bestelan euskeraz bakarrik esaten ba'dabe batzuk ez dabe ulertuko ta. Baiña ziur egon beste guztian ez dabela elebitasunik erabiliko.

Idazterakoan be bardin jazoten da, eskutitz osoa baiña ori bai izenpena* euskeraz, dotorea da ta... Au egia dala ikusi daizuen egunerokoak aztertzea baiño besterik ez dozue egin bear, «Deia» batez be.

Beste aldizkari batzutan be idazpuru* guztiak euskeraz agertzen dira ta oso ondo baiña beste guztia erderaz.

Gaur egun, lagunakaz berba egiteko edo itzaldi* bat emoteko euskerea ez da bearrezkoa*, erderaz esan ta kito; dan-danak ulertzen dabe. Orretan erdereza «internazionala» da.

Zertarako ainbeste ordu emon euskerea ikasteko, erdereagaz ondo konpontzen ba'gara? Zertarako beste buru-auste ta arazo bat artu?

Tamalgarría benetan! Euskerea gaisorik dago ta ez gara konturatzen.

EUSKALDUN BARRI

IZTEGIA

<i>Eraiki</i>	= construir
<i>Elburu</i>	= meta, fin
<i>Zabalkunde</i>	= propaganda
<i>Garrantzitsu</i>	= importante
<i>Edergallu</i>	= adorno
<i>Mail</i>	= grado, nivel
<i>Irratasio</i>	= programa de radio
<i>Aipatu</i>	= mencionar
<i>Izenpe</i>	= firma
<i>Idazpuru</i>	= título
<i>Itzaldi</i>	= conferencia, discurso
<i>Bearrezko</i>	= necesario
<i>Argi-azpi</i>	= rayo de sol
<i>Moltzo</i>	= multitud
<i>Adierazo</i>	= dar a entender
<i>Enparau</i>	= restante, sobrante
<i>Arrautzopil</i>	= tortilla
<i>Jaurleri</i>	= gobernador
<i>Abiatu</i>	= echar a andar

JUAN GARAY

AMERIKETARA

Amabost urte ebazala, Orduña bere erritik urten, eta Ameriketara abiatu zan, bere o saba Pedro Zarate'ren lagun.

Peru'n egin ebazan lenengo urteak; eta ango lurraldetan gudu ta gudu ibilli ondoren, kapztan izatera eldu zan laster.

Andik Bolibia'ra jatsi, eta Santa Cruz izeneko erria eraiki eban, Amazonia'ko lurralde gaiñetan. Sei urte bizi izan zan berton; eta abere ugariz aberastu ebazan inguruko zabaldu ederrak.

SANTA FE

Bere kontura eukazan eunda berrogeitamar gudarien buru jarri, ta beruntz, Atlantik itsasoruntz abiatu zan mendiz bera, ta sekulako basobaltz eta zingirak igarota, «Rio de Plata» bazterretara eldu zan.

Eta Santa Fe, erria eraiki eban, ango leku ederrenetarikoan, Eta uri barri oil bere bizilekutzat arturik, ara ta ona ibilliaz, beste erri batzuk bere eraiki zituan.

GUDARI ADORETSUA

Itsas-Ontzi bateau sarturik, ibaian bera joiazala, ekatx gogor batek jo, ta ankaz gora joan ziran Garay ta bere lagunak.

Doi-doi ertzera urten, eta indarbarritzen ziarduen bitartean, ona basati-multzO bat eurakana, zarata ba-lean.

«Txarruak» eritxen inditar gogor-rak ziran.

Zapikan buruzagi Ospetsua etorran zazpireun basagizon areen buru, ta gezi ta txabalinaz eras^o eutseen.

Garai' ez mutillak eure- zaldietara igon, eta naiko neke ta Ian,

asi ziran arerioaren erasoari eutsi gurean.

Ontan, gezi batek ankaz gora bota eban Garay'ren zaldia. Onek, orduan, lurretik arin altzau, eta lagun baten beste zaldira igorik, aurrera eroan eban burruka gogorra.

Alako baten, gezi barri bat sartzen jako bular-gaiñean. Geure buruzagiak, inkeak atera barik, eskua luzatu, ta zast!, being^o batean, ateratzen dau gezi madarikatua, eta aurrera doa sekulako abiadura biziz.

Basatiak aren txistua ta amofilm ikusi, eta amor emonda igesi joan ziran.

BUENOS AIRES

Gera, Iralak Paraguay'n len erakitako Asuncion uriburura igon, ta dei egiten dau erriko plazan, Argentina'ko lurralderako jente-eske.

Gizaki asko aurkeztu, ta berealako bateau eratzen dau bere txangoa.

Milla zaldi, berreun bei, basteun txarri, auntz eta ardi batu..., ta lurrez bidaltzen dauz, berrogei gudarien zainpean.

Bera, bitartean, bederatzi itsasantzi gertau; iskilloz, jangaiz eta aziz leparaiño bete..., ta uren abiatzen da, andik illabete baten bam., Oñezkaak baiña len eldu ziran; eta onek iñoiz eldu izan ziranean, guztiak batu, eta Buenos Aires, uri andi ori eraikitzen asi ziran.

Pedro Mendatza'k eraikita egoan, 43 urte aurretik; baiña leku txarrean, eta ganora barik; orregaitik laster galdu tan basatien eskuetan.

Leku oba ta ziurrago aukeratzen datt orain Garay'k. Sartu lurrean mbar bat, zuzenbide ezaugarri lez;

astindu lau aizetara bere ezpatea; ebagi lurreko bedar aunditua... eta ona gure Garay bizkarra lurralde barriaren jauna.

Laster altzau ebazan uri barriaren orma ta etxeak. Baita arrejiz inguratu, eta gaztelu andi batez indartu be. Ez can, ez, uri barri au jausi; ez eta arerioen eskuetara etorri bere, 1580 urtea zan.

JENDETZAILLE

*Onen ondoren, Buenos Aires egoaldera zabaltzen dan lurraldea ikertu ta jazten alegindu zan. Pampa'ko zabaldiak zearkatu ebazan; Tandil'eko mendikate izugarriak igon ebazan; eta beko itsasertz otzetan millaka «faca» **bereizi** orrek ikusi ebazan.*

Lur barriak ikertu ondoren, beragaz ekarri ebazan abereak bota ebazan inguruko zabaldietara; eta zarroetako garau-aziak erein landa gizenetan.

Asko ugaritu ziran, gerora, garau ta abereok. Argentina da, gaur egun, abere ta garauz munduko lurralderik aberatsanetarikoa. Buenos Aires, munduko urik andienetarikaa.

GIZON JATORRA

Naz eta lurralde asko irabazi, ta esku artean ondasun asko erabili, asO estu bizi izan zan Garay. Alango estualdi larri batean, besterik ez-eta, bere andrearen saiñekoak saldu bear izan ebazan.

Berari buruz esan eban Fidel Lopez Argentina'ko edeslariak: «Eta auxe da Garaitar joanes'engaitik esan geinkena, eta ez da gitxi: gizon zuzena izan zan beti, biotz onekoa; Amerikeratu zan kapitaniak biotz-bera ta adikorrena.

URKIOLA'k

Baso-andrea

Lengo baten basajaunatzaz zerbait idatzi neban eta gaurko onetan baso-andreari buruz, labur-samar ba'da be, jardungo dot.

Era askotan agertu oi jaku bera.

Orretan be, basajaunaren amarru ta jokabide narrakaz geienbaten dagerskuz.

Or dakusgu, bein eta geiagotan, andra oker, gaizto bat lez, bere sorginkeriakaz ingurumarietako guztiai kalte dagitsela.

Itxuraz eta egiten sorgin basati orokorra dogu benetan.

Beste berein aldiz lurkor arrain-andra baten antzera, lamiñen izaeratik txito urbil, garritik gorako edertasunez gaiñezka, bere basa-bazterreko leiza-zuloan kokatuta eta oiturazko adatz luzea, kizkur-kirimillaua bera, urrezko orraziagaz zoragarriri orrazturik dauala ikusten dogu.

IZENAK ETA TOKIAK

Ipuin eta mitolojiako andra au, beste izen batzukaz be ezagutu oi da. Tokian tokiko izen bereziak izaten ditu. Alan: «Ana Mari», «MY lari Maruko» esaten dautsoe or-emen, eta legortasunaren ta euriaren jabe dala diñoen. Trumoia ta oiñeztarria be bere menpean dituana.

Erriko ao jakintzaz, Aizkorri'n bizi ei da. Baita be iVlunumendi'n, Aralar'en, Ori'n, Anboto'n... toki ezagun batzuk izendatzearen. «Anboto'ko Señorea» izenaz be ospetsu egin jaku.

JAZKI TA IBILLERAK

Gorritz jantzita aurkeztu oi dauskue; eta apainkeriz ta kirkilleriz jantzita atan be.

Gau illun-bildurgarrietan, suzko burdi baten jarrita dogula bera, lau zaldi bizkor ariñak daroen gure «señorea» aize-zirimol boladakaz bat, mendirik-mendi gelditzeke, sugarraldiak tarteka burdztzk at bota oi dauzala, izan loka baten antzo.

Ikustekoa, ziur asko.

Urrezko amak izango ditu bene lurpeko bizitoki eskutuak.

Bere besaulkia be urrez egiñikoa izango da. hirkillerizkoa, aberastasunen ezaugarri, arribitxiz jovita lez, besaulki-gaiñekoak.

LAGUNAK

Bere laguna dan «Basajaun» edo «Muru»'gaz batu ordukoxe txingor ekaitz zkaragarzak sortu oz dira; eta bereala trumoz-ots eta txzmzst-argiz, guztiak lur jota lez izten ditu.

Mari'ren sebitzaille ta bere menpeko diranetatik, be-maillako izaki-mordotxo bat aurkitu geinke.

Oneik «itxusi» edo «Gnomo» izenez ezagutzen doguz; laguntzaille adeitsuak lez basoko neskatx polit liraiñak eundaka dabezela.



ISTORI-MISTORIAK

Beiñola baserri bateko sein-seme bategaz jabetu zan eta bere eskutuko aitz-zulora eroan eban.

An urte batzutan neskatil zintzoak goruetan jardun eban.

Maitekiro zaindu ta azi eban Mari'k gaztetxu txairoa eta ezkontzeko sasoi onenera eldu zanean, ezkontza-sari lez eskutada bat urre emon eutsan.

Beste elezar batek diñoanez, Lazkano'n jaio zan baso-andrea eta eder-ederra ei zan.

Izenez Mari esaten eutsoen eta ba-eukan neba bat abade be.

Ama gaiztoak baiña, igandero ta meza-egunetan, aita ta nebearen aolkeui jaramonik egiteke, aitz-zulo sorgin-toki batera bialtzen eban gaztea; eta bertan bizi zan sorgin dongeak bere sorginkeri, aztikeri ta lillura nabarmenakaz zoratzen eta gaiztitzen eban Mari ederra.

Bein baten neba abadea aspertu zan Miren'en jokararakaz eta burdi baten sartu eban bere arreba zitala.

Burdi-gaiñean ondo lotuta itzi eta eleizako elizpera eroan eban bera.

Bereala abadea eleiz-gelara sartu zan lepo-ugal edo estolea artzera.

Urteeran baiña, bere arrebea sorgin utsa zan eta suzko garren inguraturik egoala ikustatu eban eta zelan zerutik zear joian betiko zorigaiztoko lurdi artan.

Ordutik ona Mari sorgiña zazpi urte Anboto'n bizi ei da, eta beste zazpi Ori-mendiko arkaizulo baten.

Gaurkoz amai-bidea damotsogu. Geroko baten geiago.

ARREGI'tar Josu'k

Egoamerikako ikasleak

Onela mintzatu ziran Teizen 40 lurraldeetako 7.000 gazte: «Ez dogu gorroto-guraririk. Zerbait egin gura dogu. Sortu-erazi. Mundua aldatu daitela gura dogu. Gatxa-zailla-ba-da; ez dogu zurituko geure burua. Geu be errudun gara».

* *

«Gauza bat autortu bear dozue zuek: zapaltzalleak zarcla.

Dakizuela edo ez dakizuela, anaia zapaltzen zabiltze aspaldi baten.

Danok autortu bear dogu au. Kontzientziak berak diñosku. Ez dagigun jarraitu gizona

zapaltzen. Munduaren jokera berak menderatuta gagoz danok.

Zuek zoriontsu zagizen edo-zetariko irabaziak, gu menderatuta gagoz».

* * *

NAIMENA TA MAITASUNA bide jarri bear doguz gizar-tean beste jokabide bat sortu-erazteko.

27 urteko bizia dauke gizon-emakimeak Egoamerikako toki askotan.

80 milloak dakie irakurten eta idazten. Ez jakin utsak dira.

Txabola utsetan bizi dira pihlotuta lez milla ta milla.

GOIRIA

Jaiotzen diran milk umetatik 600 lenengo urtean ilten dira. Edozenbat iltea ez daukagu ontzat. Zuetariko asko lo dagozala-ta gagoz.

Emen diñoguna ez da naiko zuek egia ikusi dagizuen eran esnatu-erazteko.

Gatx da politika agiri-eragikor baten bidez jokatu nai ez dauan Elizan sinistea.

Askatasun-naiak politika-ekintza esan gura dau, gizona zapaltzen dauan jokabidea bait-da».

Itzok ez dabe azaldu-bearrik. Bakotxak gogoan artu ta ausnartu.

Angelus

*Ilunabarra! Ortzea oztin, lañorik gabe,
izarrak jaiez ta jolastutzen;*

*egun alaia, argia galduz motelduta lez,
geldiro-samur aienatutzen.*

*Euzki-argiak eskutatu dau mendi-ostean
bere musua geldi-geldiro;*

*eta illargia itxasoari laztanka dago
pozez ez-titan ta maitekiro.*

*Artzai gazteak oi-u-txistuka etxeratu du
bere artalde gizen-guria;*

*ixildu dira abesten ziran txori alaiak,
amaitu euren kanta zoliak.*

*jatzi dirade idia moztan mendian ziran
gizonak eta gazte alaiak;*

GOIRIA

*aterpetxoan dagoz pozarren atsedean artzen
bake ederrean jaiez guztiak.*

*Aize-tartean kanpai-otsa or eldu gozoki
bertan dagoan jende-tartera;*

*Birjiña Amari otoitz-eiteko deika dagozan
eliz-dorreko kanpaiak dira.*

*«Agur Maria» - diño gozoki aitona zarrak,
txapela eskun lurran belaunak;*

*gugaitik otoitz Jaunaren Ama - darantzutsoe
izkera apalez euskeraz danak.*

*Euzko gogotik urtenda zuzen zerura doan
otoitz ez-titsu ta zerukorra;*

*goiak bigundu ta abenda zarra gaizkatuko dun
otoitz eder eragikorra.*

BURUKO MIÑAK

PATXIREN JATORDUAK

Patxi oso goiz joaten zan lanera; eta egun guztiko otordua, sardin zar pare bat besterik ez eutson jartzen andreak. Ezkondu ziranean, gizon edErra zan; baiña orduan, azur eta azal besterik ez.

Illunabarrean, zutunik doi-doi etxera zarerako, sekulako ondo-etorria egiten eutson andreak; apari kaskarra baiña: beste sardin zar bat legor-legorra, ta ur preskoa edari.

Barau guztiok egiñagaitik, kalera orduko, den-dako atso guztiak an ebazan atzetik oiuka:

—Patxi, Patxi! Zorrak noz ordaindu bear dozuz?

—Zorrak? Zereko zorrak? Au be ba dok gero! Iru sardin zar egun guziraiko jana, ta bazter guztietan zorrak...?

ANDRA KATALIN

Bere andra Katalin, ori bai, galanta ta bikaiña egoan; baiña arek ez eban jaten, iñoren aurrean beñikbein. Zerbait jateko agintzen eutsoenean:

—Zereko jan! Buruko miñaz nago baiña! Erdi negarrez esaten eban beti.

Eta Patxi'k iñoan bere kautan

—Nire Katalin ez jabilk ondo! Beti buruko mifiak! Ezer jan ez, eta alango atso ederra?

Eun kilotik gora izango zan a, ziur. Gizonak galdu alean, andreak irabazten eban. Patxi kezkatu zan, eta goiz batean, lanera joianteko atzekiaz, korta-zulotik zeleta egin eutson.

Andik amar minutu baiño len, Jaungoiko maita! Zer zan a? Sukaldeko mai-gaiñean pitxar bat ardao ikusten zan, eta arra bete luzeko lukainkea tartean eban arrautz-opilla; kilo ta geiagoko arto beroa, barriz, su-gaiñean. Lanerako estatusan an-

dirik baga, patxada ederrean, sartu ebazan bere zilbote andi aretara danak.

—Arraiozko atsoa, ez jagon txarto! —ekin eutson Patxi'k bere buruagaz—. Galanta edukiko aunagu orrelan! Nire illebeteko sardin zarrak ez jaben gosari orrenik balio. Agon, agon, Arratsean ikusiko jonagu!

PATXI'REN KANTA

Arratsean, nekatuta, eskaratzera zaneko, betiko arrera maitatsua egin eutson andra Katalin'ek bere senar Patxi maiteari; sardin zar bat besterik ez baiña, apari. Eta bere a jan, eta ur presko txurrupe bat egin ebanean:

—Aiko, Katalin —esan eutson Patxi'k bere andreari—. Gaur umore onean naion bai..., eta kanta egin bear jonat... Ikusiko don buruko mifiak be zelan joango jatazan...!

—Bai, zereko kantak...! Orixe bear neuke orain... Ez daukak ik nire buruko miñik!

—Ik entzun besterik, ez. Oso kanta polita don; eta oso laburra, gaiñera.

—Bueno, bueno... ! Ik gura badok...?

Eta asi zan Patxi gergel moduan kantari:

Suntan arlo beroa!

Botilla ardao galanta!

Arraulza-opil andia!

Ni korta-zulotik begira!

Kanta amaituta, zearka bere andra galanta Katalini begiratu eutsoenean, lotsaz ta bildurrez gorri-gorri egiña, ikusi eban Patxi'k bere emaztea.

Ondoren gertau zana, ez dago zetan esanik. Buruko miñak be oso gitxitan izaten ei ebazan andik aurrera.

ESTONBA'tar Manuel'ek

Gabonetako zorion-agurrak

Gabonetako jaiak dirala ta, zorion agurrak ugari izan dira. Neuk here izan dodaz, eta baten, eskari lez, iñoan... «Errientzat bakea».

Gauza zantarrak ikusten doguz, azkenengo aldi onetan, Orregaitik, nik, galeratzeko ezer egin ezin dodalako, neure biotza erdi lo euki gura dot, ezer ikusi eztagian. Baiña *Erria* entzuten dodanean itxartuten jat; zauria ukututen daust eta urduri geratzen naz.

Bakea opalduten dauste. Ez da gauza ona?

Ia berrogei urtetan izan dogu bakea. Jauntxokerien bakea, zapalckerien bakea ildegiko bakea...

Jauntxokeria, errian, zantarkerien ernemiña. Zenbat eta luziagoa zapalkeia, zantarkeri gorragea. Gogoa galduta, odolaz gauzak konpondu gura.

Au, antziñako jakintsuak, aurkitu ta agertu euskuen (Platan).

Jaungoikuaren legea ausita, gaitakeria egiten dabenak, txarto egiten dabe; baiña oneixek dira ernemiñetik azitako landarak.

Erderaz esaten dabe: «Aizia ereinten daunak, ekatxak bildu».

Atzo, Josu'ren Ugutzia, Isaias' kea; askatasunaz eta zuzentzen eresiak irakurri euskuezan: sunaz datorran bakea!

Bera'gan ipiñi dot neure gogoa
ERRIEN ESKUBIDEA EKARTEKO...

...Nik deitu dot, giltzapian dagozanak askatzeko...

Neure erri gaixua! Jauna'gana itzuli zaitetz!

Alperrik egiten dau bearra argiñak, etxegitean, Jauna'k beragaz ez ba'dau eraikiten.

Alperrik begiratzen dau er-tzañak, Jauna'k beragaz ez ba'dau zaintzen.

Jauna emon bakea, zure ba-

EZ AUSI IRUDIA!

*Kutxa baten gordeta, dagoz argazkiak.
An gagoz gu, gaztiak, alai ta bizkorak.
Asko batu gñuen, mendian, jai atan,
Aberria goraltzen, danak jeltzaliak.*

*Eztozu iñoz ikusi, erreka uretan,
Zeru, zugatzak, lorak, baita arpegiak
Irri-barreka, antxe, danak irudian?
Arri bat jaurti ezkerro, milla zati einda,
Irudi atsegingarri, ayenatuten da.*

*Mendian jayoriko ura, iturritxuan,
Garbi-gardena, pozik, arririk arrira,*

*Kantari jatsiten da. Uñak, txikitxubak,
Alkarrekin batuta, duan itxasorantz•
Atxa biden erdian: urak, albueta
Aldenduta, eiten dabe, barriro bidia.*

*Bidia eginda gero, itxaso aurrian,
Aurkituten ba'dira, une baten... Tamal!
Zelan dago ain loituta? Dana da bustiña!*

*Urriak igarota, ezkara ikusi alkar...
Orain? Nik eztot gura!
Buruko kutxatxuban, da gomuta alaya.
Orain alkartu? Arria!*

Ez ausi irudia...

UTARSUS

AGUR URTE ZAR!

Parkatu begidazu, Urtezar, berandaturik ba'nabiltzu.

Joan zaiakuz zeure amagana, beti irauneko boa egitera.

Agur ba, eta ondo lo egin.

* * *

Eta zelan itziko dot agurrik gabe Marbel doixtar ikasle azkarra?

Agur dagitzut zuri be, eguzkiaren sortaldeko Chew neskatil gazte orri!

Uskis'dik, Algorta, Sodupe, Begoña, Txorri-erri eta, ainbat eta ainbat leku ezbardiñetatik bizkaiera ikastera zatozeen ikasle urtetsu, erdiko, gazte sutsu.

* * *

Andaluzi'tik, Logroño'tik eta Burgos'tik onaiño etorririk, edo-ta emen bertan jaioa izanik, azur eta mami euskaldundurik, aberri barri onen seme-alaba izan gura dozuen danoi.

Jaso bekizue nire aldetik, urte ontako agurrik gartsuena.

Beti ta beti ganezka egiteraiño, kuin-kuin bizkaieraz bete-betea da-ta.

* * *

Irakasle, andereñotarako, itz egiten ikasten diarduzuen danoi eta, Euskezaleak'eko batzorde yayoari: Gora biotzetiko gorantzi yaukelak !


Tilin-talanka miña ezi arazoten zarieneztat, datorkun udaldia azkena izango zenbaitentzat.

Ateetan deika diranai tokia itxirik, ikasle zar eta barria, barriz be, bete alean goraiño beterik, bizkaiera egiten dagizuen eta.

Iñori dagokion begirapena galdu barik, ez daigun lagatu, geuri dagokigun aintza iñork oinperatu dagizkun.

LANDAJUELA'tar A'k.

IZKI-NASTEAREN ERANTZUNA



IPUIN-SARIKETA

— «Euskerazaleak» taldeak ipuin-sariketea eratzen dau.

— Bizkaieraz idatziak izan bearko dabe.

— Luzeerea: Orri aundi bi, bitarte bikoak, geienez.

— Jorraillaren 13'rako Talde onek artu bearko ditu.

— Orrillaren asieran, ille orretako ZER'en agertuko da maikoen ebatzia.

— Sariak iru izango dira: Lenengoa 25.000, 2.^a 15.000 milla, 3.^a 10.000 pezeta.


— Ipuin gaia, idazleen esku geratzen da.

— Saria lortzen daben iru ipuiñak ZER'en agertuko dira eta idazlea jabe geratzen da.

EUSKERAZALEAK

ZAR

Colón de Larretégui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1



70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO

ONDO ERANTZUTEN DAU